



# Jarduera fisikoaren eta kirolaren jarraibideak

NORMALTASUN BERRIA: 2020KO URRIAK 26

- o Mugakide diren udalerrien arteko mugikortasuna baimentzen da kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko.

## JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

- o Kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta gehienez ere 6 pertsonako taldeetan, aldi berean.
  - Aldi berean talde bat baino gehiago egon daitezke.
  - Ez da onartzen taldeen eta horien arduradunen arteko harremana, eta arduradun bat egon daiteke talde batekin baino gehiagorekin.
  - Maskararekin, jarduera fisikoko uneetan izan ezik, betiere pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa dela bermatzen bada.
- o Ehiza-jarduera mota guztiak eta Ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza. Ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza mota guztiak baimentzen dira, beti ere pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzen bada. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa den.
- o Kirol-eremuak, skate pistak edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta horietan gehieneko edukiera errespetatzen bada: barrutiaren azaleraren espazio konputagarriko 4 metro koadro bakoitzeko pertsona 1. Udalei dagokie espazioa antolatzea, baita garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere.

## KIROL-INSTALAZIOAK (Igerilekuak barne)

- o Bakarkako Kirola egin ahal izango da.
- o Gimnasioetan programatutako ikastaroak edo jarduerak egin ahalko dira, atsedendietan eta joan-etorrietan maskara erabiliko. Maskara ez da beharrezkoa izango jarduera momentuetan, baldin eta 1,5 metroko gutxieneko segurtasun-distantzia bermatzen bada, eta une oro instalazio bakoitzaren berezko protokoloetan ezarritakoa betetzen bada.
- o Aforoa baimendutakoaren gehieneko edukieraren %50 izango da
- o Aldagelak eta dutxak erabili ahal izango dira, babes-arauak betez eta pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia mantenduz.
- o Taldeka ematen diren ekintzetan, taldeko, gehienez 6 lagun izango dira.
  - Gehieneko edukiera %50 izango da.
  - Aldi berean talde bat baino gehiago egon daitezke.
  - Ez da onartuko taldeen eta horien arduradunen arteko harremanik, eta arduradun bat egon daiteke talde batekin baino gehiagorekin.



### **ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA PROFESIONALAK ETA ERDI-PROFESIONALAK**

- Urriaren 26ko Dekretuan agertzen den "Profesionala" eta "erdiprofesionala" kontzeptuak, honako hauek dira
  - Lehiaketa Profesionala: Futbola: Liga Santander eta Liga Smartbank eta Saskibaloian: Liga Endesa (ACB), baita talde horiek parte hartzen duten nazioarteko lehiaketak ere.
  - Lehiaketa Semiprofesionala: Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategoria absolutuan. Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutuan.
- Entrenamenduak eta kirol-lehiaketak baimentzen dira. Hauek taldekako mugarik gabe eta mugikortasun-mugarik gabe entrenatu ahal izango dute.
- Basque Team-eko Kirolari eta teknikariek eta Goi-mailako izendatutakoek bai lehiatzeko eta baita entrenatzeko aukera izango dute, taldeak mugatu eta mugikortasuna murriztu gabe.
- Maskara nahitaez erabili beharko da, jarduera momentuetan izan ezik.

### **ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA FEDERATUAK.**

- Aurreko puntuan jasota ez dagoen kirol federatuaren lehiaketa eteten da.
- Kirol federatuen entrenamenduak baimentzen dira, beti ere 6 pertsonako taldeetan
  - Aldi berean talde bat baino gehiago egon daitezke.
  - Arduradun bat egon daiteke talde batekin baino gehiagorekin.
  - Maskara nahitaez erabili beharko da, jarduera momentuetan izan ezik.
- Kirol federatukoek mugatuta dute mugikortasuna, bere udalerrira eta alboko udalerrira.
- Lizentzia federatuak indarrean egon beharko du eta 2020ko urriaren 26a baino lehenagokoa izan beharko du.

### **ESKOLA KIROLA.**

- Taldekako zein bakarkako Eskola kiroleko entrenamenduak baimentzen dira.
- Eskola-kiroleko lehiaketa bertan behera geratzen da (2007an eta ondoren jaiotakoetan). Eskola-kiroleko entrenamenduak baimenduta daude.
- Taldeka ematen diren ekintza edo/eta entrenamenduetan gomendatzen da, taldeko, gehienez 6 lagunek parte hartzea.
  - Aldi berean talde bat baino gehiago egon daitezke.
  - Ez da onartuko taldeen eta horien arduradunen arteko harremanik, eta arduradun bat egon daiteke talde batekin baino gehiagorekin.
- Ikastetxeetan burutzen diren jarduera eta/edo entrenamenduak bertan ezarritako protokoloak bete beharko dituzte.

**LEHIAKETAK. KIROL-EKITALDI ETA IKUSKIZUNAK.**

- Arriskuak murrizteko plan (protokolo) bat izan beharko dute, eta Osasun Publikoaren Zuzendaritzak ebaluatuko du plan hori.
- Antolatzaileek plan (protokolo) hau diete erakunde eskudunei aurkeztu beharko diete lehiaketa garatzeko baimena eskatuz

**PUBLIKOA BERTARATZEA**

- Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezean, babes fisikorako neurri alternatiboak baliatuko dira.
- Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa den (Bizikidetzaren unitateen kasuan izan ezik, halakoetan ondoz ondoko eserlekuetan eseri ahalko dira eta).
- Ikus-entzuleak eserita egon beharko dira eta aulkia aurrez esleitzea eskatuko da.

**Gehieneko edukiera espazio itxietan.**

- Baimendutakoaren %50ko gehieneko edukiera eta gehienez ere 400 pertsonara arte.

**Gehieneko edukiera aire zabaleko espazioetan**

- Baimendutakoaren % 50ko gehieneko edukiera eta gehienez ere 600 pertsonara arte.
- Aire libreko kirol-lehiaketak egitean, esaterako, arraunketa, atletismoa, errepideko txirrindularitza, automobil-rallyak eta antzekoak:
  - Ekitaldia gauzatuko den espazioa edo ibilbidea aurrez mugatuko da, eta espazio edo ibilbide bakoitzean gehienez ere 600 pertsona baimenduko da.
  - Bertaratzen diren edo parte hartzen duten pertsonen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa mantenduko da
  - Maskara nahitaez erabili beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 26a

**Jon Redondo Lertxundi**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria**



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA BAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y LINGÜÍSTICA